



## Andoaingo Udalak ferrata bidea jartzeko lanak hasi ditu Leitzaran bailaran

- Lanek 65.366 euroko aurrekontua dute, BEZ barne, eta 2 hilabeteko egikaritze-epea
- Proiektua % 80ean LEADER Europako Funtsek finantzatzen dute
- Iraunkortasuna erabakigarria izan da proiektuaren diseinu-fasean, eta erabakigarria izango da, halaber, haren kudeaketa-ereduaren etorkizuneko definizioan

Andoaingo Udalak ferrata bidea instalatzeko lanak hasi ditu aste honetan. Proiektua aireko eta naturako ibilbide gidatu berri baten parte da, eta bisitarien zentrotik sartuko da bertara. Lanek 65.366 euroko aurrekontua, BEZ barne, eta 2 hilabeteko egikaritze-epea dute. Ibilbide luzeko proiektu eraldatzailea da, eta ordezkari politiko ezberdinen babesa izan du.

Ezarriko den **tirolina 70 metro luze** izango da, eta zorutik 16 metrora egongo da. Publiko guztiek erabili ahal izateko moduan diseinatu da. Tirolina gainditu ondoren, igoera, aurrera egin ahal izateko mailak dituzten guneharritsuak tartekatuz hasten da.

Bost horma zenbatzen dira ibilbidean, tirolina utzi eta ferrataren igoerarekin hasten denetik, hau da, 220 metro inguruko igoera lineala, ibilbidearen amaiera markatzen duen haitz handi batera iritsi arte. Ferrata bidearen trazaduraren amaiera baso-pista batean amaituko da, eta bertatik oinez jaitsi behar da bisitarien zentroko jatorrizko puntura.

### Sorginen hegaldia

2016an aireko ibilbide gidatuaren proiektua osatzen hasi zen Udala (Sorginen hegaldia izenekoa), Bisitarien zentrotik sartzeko. Horretarako, bi azpiegitura erabiliko lirateke: **tirolina txiki bat, Leitzaran ibaia zeharkatuko lukeena, eta burdinbide bat, ibilbide laburrekoa**, aipatutako ibilbidearen goiko aldera iristeko.

**Proiektu horren ia %80 LEADER funtsek** (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) **finantzatuko du**, eta honako premisa hauek kontuan hartuta egingo da:

- Eremuan **ahalik eta inpaktu txikiena** sortzea.
- Udalaz gaindiko gainerako administrazioen (URA agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia) **ingurumen- eta segurtasun-baimen guztiak izatea**.
- Jarduera garatzen den **espazioari balioa ematea**, hobeto ezagutu eta zaintzeko. Erreferentzia gisa, proiektu hau egiteak jarduketa-eremuan dagoen legez kanpoko zabortege bat garbitzea ekarri du.
- Ibilbide honen eremuan bisita gidatuak egitea, betiere **gidari espezializatu batek gainbegiratuta**.
- Egunean **parte hartzen dutenen kopuru mugatua** (gehienez 30 pertsona egunean).



Beraz, iraunkortasuna funtsezko zutabea izan da lehen fase honetan proiektu hau diseinatzeko eta lantzeko proposamena egiteko, ingurumenaren ikuspegitik, tokiko ingurune fisikoari eta habitatei kalterik ez egiteko. Bigarren fasean ere hala izango da, proiektuaren etorkizuneko kudeaketa-ereduaren definizioan, Andoaingo Udala gaur egun lantzen ari den alorra. Ingurumen-azterketak adierazten digu zonaldeak **gehienez ere 30 pertsona jasan ditzakeela eguneko, eta 4+1 gida bisita bakoitzeko**. Obraren jarraipena ingurumeneko aholkularitza-enpresa batek, geologo batek eta Aldundiko basozain batek egiten dute.

### **20 urte baino gehiagoko ibilbidea**

Andoaingo Udalak 20 urte baino gehiago daramatza Leitzaran bailarari balioa ematen, zaindu eta babestu beharreko gune natural gisa. Ordutik, hainbat proiektu eta jarduketa egin dira naturgune horrekin lotzen diren edo horien artean dauden espazio eta azpiegiturak berreskuratzeko, egokitzeko, segurtasunean hobetzeko eta balioa erantsia emateko:

- **Bide berdea:** Arantzibia eta Auzokalteko trazatua, zubiak eta tunelak hobetzea. Antzinako azpiegiturak berreskuratu dira, erabiltzen ez zirenak eta hondatuta zeudenak. Oinezkoentzako pasealekuak egin dira, hala nola Lizarkolako kanala eta bisitarien zentroa Bertxingo zentralarekin lotzen duen ibilbide homologatu berria.
- Ingurunean **bide sare bat sortzea** Andoaindarrentzat eta bisitariarentzat.
- Leitzaran bailaran **ibilgailuen trafikoa arautzea** (aurten bertan haranera sartzeko errepidea moztu da, jende asko sar ez dadin eta mugikortasun jasangarria sustatzeko)
- **Otietara eta Olazar landa-parkeak berreskurapena eta egokitzea**, hedapen gune gisa erabiltzeko, Leitzaran bailarara behar baino jende gehiago ez sartzeko.
- **Haurrentzako udalekuak** egin dira, eta kanpamenduko kideentzako sentsibilizazio-kanpainak integratu dira.

Horrez gain, hainbat bilera egin dira tokiko zein udalaz gaindiko erakundeekin eta eragileekin, Leitzaran Parke Natural izendatzeko beharrezko urratsak emateko.

Leitzarango Bistanteen Zentroa berriz ireki zenean, 2016an Turismoaren eta Naturaren aldeko apustu irmoa egin zen, *Slow adventure* edo abentura sosegatuan oinarritutako eskaintza batekin, jasangarritasuna, irisgarritasuna, kultura eta tokiko ondarea ezinbesteko baliabide gisa kontuan hartuta.

Aurrekari horiekin, logikoa da pentsatzea **ingurumenaren iraunkortasuna** funtsezko premisa izan dela eta dela Leitzaran bailararen inguruan edozein proiektu abian jartzeko.



## El Ayuntamiento de Andoain inicia los trabajos de instalación de la vía ferrata en Leitzarán

- Los trabajos cuentan con un presupuesto de 65.366 € euros iva incluido y un plazo de ejecución de 2 meses
- La realización de este proyecto está financiado, en casi un 80 % por Fondos Europeos LEADER
- La sostenibilidad ha sido determinante en fase de diseño del proyecto y también lo será en la definición futura de su modelo de gestión

El Ayuntamiento de Andoain ha iniciado esta semana los trabajos de instalación de la vía ferrata que forma parte de un nuevo itinerario aéreo-naturalístico guiado al que se accederá desde el propio centro Visitantes. Los trabajos cuentan con un presupuesto de 65.366 euros y un plazo de ejecución de 2 meses. Se trata de un proyecto transformador de largo recorrido, que ha contado con el apoyo unánime de todos los representantes políticos.

La tirolina tendrá una **longitud de unos 70 metros** y transcurre a una altura del suelo de unos 16 metros. Su diseño se realizará de tal manera que pueda ser utilizada por todos los públicos. Tras superar la tirolina, comienza el ascenso intercalando zonas rocosas, equipadas con peldaños para poder progresar.

Se han contabilizado cinco paredes en el recorrido desde que se abandona la tirolina y se comienza con el ascenso de la ferrata, lo que supone un recorrido lineal de **ascenso de unos 220 metros** hasta llegar a una gran roca característica que marca el final del recorrido. El final del trazado de la vía ferrata terminará en una **pista forestal**, desde donde realizar un descenso andando al punto de origen en el centro de visitantes

### El vuelo de las brujas

Así, en el año 2016 se empezó a elaborar el proyecto de un itinerario aéreo-naturalístico guiado (denominado El vuelo de las brujas) al que se accediese desde el centro Visitantes. Para ello, se utilizarían dos infraestructuras: **una pequeña tirolina, que atravesase el río Leitzarán, y una vía ferrata, de corto recorrido**, para acceder a la zona superior del citado itinerario.

La realización de este proyecto **financiado, en casi un 80 % por Fondos LEADER** (Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural), se plantea con las siguientes premisas:

- Generación del **mínimo impacto en la zona**.
- Contar con todos los **permisos y autorizaciones, tanto ambientales como de seguridad**, del resto de administraciones supramunicipales (URA agentzia, Dpto. de Medio Ambiente de Gobierno Vasco y Diputación de Gipuzkoa)
- La **puesta en valor del espacio** donde se desarrolla la actividad, para su mejor conocimiento y preservación. Sirva como referencia que la realización de este proyecto supondrá la limpieza de un vertedero ilegal que se encuentra en la zona de actuación.



- Realización de visitas guiadas en la zona de este recorrido siempre bajo la **supervisión de un guía** de naturaleza especializado.
- **Número limitado de participantes diarios** (no más de 30 personas por día).

Por tanto, la sostenibilidad ha sido un pilar fundamental para la propuesta de diseño y elaboración de este proyecto en esta primera fase, desde la perspectiva medio ambiental para evitar daños al medio físico y hábitats del lugar. También lo va a ser en una segunda fase, en la definición del modelo de gestión futura del proyecto, aspectos que el Ayuntamiento de Andoain trabaja en la actualidad. El estudio de medioambiente ya nos marca que la zona tiene una **capacidad de carga máximo de 30 personas/día y 4+1 guía por visita**. El seguimiento de la obra lo realiza una consultora medioambiental, un geólogo y un guarda forestal de Diputación.

### **Un recorrido de más de 20 años**

El Ayuntamiento de Andoain, lleva ya más de 20 años impulsado la puesta en valor del Valle Leitzaran como espacio natural a preservar y proteger. Desde entonces, se han llevado a cabo distintos proyectos y actuaciones dirigidas a la recuperación, acondicionamiento, puesta en seguridad y valor de aquellos espacios e infraestructuras que conectan o se encuentran entre este espacio natural:

- **La vía verde:** mejora del trazado, los viaductos de Arantzibia y Auzokalte, así como de los túneles. Se han recuperado antiguas infraestructuras, en desuso y deterioradas, ejecutándose paseos peatonales como es el caso del Canal de Lizarkola y el nuevo recorrido homologado que conecta el centro de visitantes con la central de Bertxin.
- La creación de una **red de senderos** en la zona para Andoaindarras y visitantes.
- La **regulación del tráfico rodado** dentro del Valle Leitzaran (este mismo año se ha cortado la carretera de acceso al Valle, para evitar entrada masiva de personas y fomentar la movilidad sostenible)
- La regeneración y acondicionamiento de los **Parques Rurales de Otieta y Olazar**, que sirvieran de zona colchón para evitar afluencia masiva de personas al interior del propio valle Leitzaran.
- Se han llevado a cabo **campamentos de verano** para niños en los que se han integrado campañas de sensibilización para los miembros del campamento.

Incluso, se han llevado a cabo distintas reuniones con instituciones y distintos agentes tanto locales, como supramunicipales, con el objetivo de dar los pasos oportunos para la declaración del Valle Leitzaran como Parque Natural.

Con la reapertura del Centro de Vistantes Leitzaran, en el año 2016 se hizo una apuesta decidida por el Turismo e Naturaleza, con una oferta basada en el *Slow adventure* o aventura sosegada en la que se tuviesen en cuenta la sostenibilidad, la accesibilidad, la cultura y el patrimonio local como recursos imprescindibles.

Con estos antecedentes, es lógico pensar que **la sostenibilidad medioambiental** ha sido y es la una premisa fundamental para la puesta en marcha de cualquier proyecto en el entorno del Valle Leitzaran.